

INFORMAZIO OHARRA

Eusko Ikaskuntzaren eta Noticias Taldearen arteko hitzarmena

Euskal gizartearentzat interesgarriak diren sakoneko edukiak irekian zabaltzeko bi erakundeen arteko lankidetzaren esparrua ezartzen du gaur sinatutako akordioak

Bilbo, 2023ko abenduak 18. Eusko Ikaskuntzaren lehendakari Ana Urkizak eta Noticias Taldearen zuzendari nagusi Juan José Bañosek bi erakundeen arteko lankidetzaren hitzarmen bat sinatu dute gaur, euskal gizartearentzat interesgarriak diren edukiak zabaltzeko, baita dagozkien arloetan jakintzaren trukaketa bultzatzeko ere.

Akordioan jasotzen denez, Noticias Taldeko komunikabideek Eusko Ikaskuntzak garatutako proiektu eta jardueren berri emango dute euskaraz eta gaztelaniaz eta, bereziki, 2024ko udazkenerako aurreikusitako Eusko Ikaskuntzaren XIX. Kongresuaren ingurukoak. Proiektu horietan adituak diren pertsonak elkarriketak emango dituzte eta iritzi artikulak sinatuko dituzte aldizka.

Eusko Ikaskuntzaren Nafarroako kokapena kontuan izanik, hitzarmenak Diario de Noticiasekin lantalde berezi bat sortzea ezartzen du, zabalkundea definitzeko.

Plataforma digitalak ere aipatzen dira hainbat proposamenekin. Proposamen horiek hitzarmenaren iraupena finkatu den lau urteetan egikarituko dira.

Beste alde batetik, Noticias Taldea Eusko Ikaskuntzarekin lankidetzaren estuan arituko da, unean-unean zehazten diren gaietan sakontzen lagun dezaketen bere harreman-sareko espezialistak identifikatzeko.

NOTA INFORMATIVA

Convenio entre Eusko Ikaskuntza y el Grupo Noticias

El acuerdo firmado hoy establece un marco de colaboración entre ambas entidades orientado a la difusión abierta de contenidos en profundidad de interés para la sociedad vasca

Bilbao, 18 de diciembre de 2023. Ana Urkiza, Presidenta de Eusko Ikaskuntza-Sociedad de Estudios Vascos, y Juan José Baños, Director General del Grupo Noticias, han firmado hoy un convenio de colaboración entre ambas entidades orientado a la difusión de contenidos de interés para la sociedad vasca, así como para favorecer el intercambio de conocimiento en las áreas que a cada entidad competen.

Tal como recoge el acuerdo, los medios de comunicación pertenecientes al Grupo Noticias informarán, en euskera y castellano, de los proyectos y actividades desarrollados por Eusko Ikaskuntza, y particularmente del XIX Congreso de Estudios Vascos previsto para el otoño de 2024. Personas expertas implicadas en dichos proyectos darán entrevistas y firmarán artículos de opinión regularmente.

Dada la cobertura de Eusko Ikaskuntza en el territorio navarro, el convenio establece la creación de un equipo de trabajo específico con Diario de Noticias de cara a definir su cobertura.

Las plataformas digitales aparecen igualmente mencionadas con distintas propuestas que deberán cobrar forma a lo largo de los cuatro años en que se ha fijado la duración del convenio.

En otro orden, Grupo Noticias colaborará y coordinará estrechamente con Eusko Ikaskuntza en la identificación de especialistas pertenecientes a su red de contactos que puedan ayudar a profundizar en los temas que puntualmente se determinen.